

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2011ko abenduaren 15ean egindako tailerraren akta



Konturatu garenerako, aurtengo Legazpiko Agenda 21eko Foroaren azkeneko tailerra egiteko eguna iritsi da! Tailer interesgarria eta bizia. Gaurkoan ere gai ezaguna aztertzeari ekin diogu, izan ere joan den azaroaren 15ean egin genuen bileran hainbat gauza erabakitzeke geratu zitzaizkigun.

**Legazpiko herri barruko autobus zerbitzu berria** buruan ibili dugu azkenaldiotan eta denbora eskaini diogu gaiari, ... eta emaitza onak lortu ditugu! Laster zerbitzua martxan jartzea ahalbidetuko duten hainbat alderdi zehaztea lortu dugu.

Beraz, ohi bezala,.... Eskerrik asko lana gustura egiten duen talde honi. Ikaragarria da Legazpi hobetzeko jartzen duzuen guztia: zuen parte hartzea, konpromisoa, entzuteko gaitasuna, ekarpenak egiteko gogoia,

Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Floren Gutierrez • Arantza Lobo (Domingo Agirre eskolako Guraso elkartea) • Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) • Kepa Retolaza • Aurelio González (Lenbur) • Manuel Fernandez (Nagusilan) • Izaskun Olaizola • M<sup>a</sup> Jose Cantero (Nagusilan) • Junkal Fernandez • Rafael Gomez (Buskabaso) • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Jose Ignacio Gil • Juan Carlos Agirre • Javier Iraeta (zinegotzia) • Aitor Madina (zinegotzia) • Igor Urrate (zinegotzia) • Kepa Urzelai (Legazpiko alkatea) • Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 2 berri labur eta eskaera bat tailerrari hasiera emateko

Inma Hernandez Legazpiko Agenda 21eko Foroaren berriemaile partikularrak, gaur 2 berri labur eskaini dizkigu:

- **1. Berria: Legazpiko Udalak Ekoscan ikuskapenak gainditu ditu**

Ekoscan ingurumenaren kudeaketa egokia ziurtatzen duen agiria da. Ihobe, Ingurumena kudeatzeko Eusko Jurlaritzako Sozietate Publikoak bultzatzen duen erreminta da. Azkeneko urteotan Legazpiko Udala bertara dago atxikita ingurumena hobetze aldera emaitza onak lortzeko helburuarekin.

Zehazki, Legazpiko udaletxean Ekoscan ziurtagiria bulegoetan nahiz obretako lantaldean aplikatzen da. Kasu bietan, urtero ingurumen-helburu berriak finkatzen dira eta urtero egiten den ikuskaritzan helburu horiek bete diren egiaztatzen da.



- *Bulegoetan joan den 2011ko azaroan egin zen ikuskaritza eta emaitza onak lortu ziren. Aurten, batez ere, erosketa berdea landu dugu. Datorren urtera begira, gai hori lantzen jarraituko dugu eta, era berean, eraginkortasun energetikoa hobetzea aztertuko dugu.*
- Obretako udal lantaldeak bihar, abenduak 16, gainditu beharko du ikuskaritza. Dena ondo joatea espero dugu! Kasu horretan, aurtengorako ezarri ziren 2 helburuetatik bat bete da baina bestea ez da bete. Beraz, bete ez den hori izango da datorren urtean indartuko dugun gaia.

\* OHARRA: Akta hau egin dugun egunerako dagoeneko jakin dugu ikuskaritza gainditu egin dela. Zorionak!!! Hori pozgarria da eta ingurumena hobetzen jarraitzera bultzatzen gaitu!

- **2. Berria: Legazpin bidegorriari ematen zaion erabileraren gaineko azterketak emaitza interesgarriak eman ditu**

Legazpin bidegorriari ematen zaion benetako erabilera neurtzeko helburuarekin (dagoeneko 3 urte igaro dira bidegorria egin zenetik), Gipuzkoako Foru Aldundiak kontagailu automatikoa jarri zuen Laubide auzotik kiroldegira doan bide-tartean. Kontagailua urrian egon zen jarrita, 15 egunetan.

Kontaktak datu interesgarriak eskaini ditu:

- *Bataz beste, lanegunetan, gutxi gorabehera, 120 pertsonak erabiltzen dute bidegorria (kopuru horretan ez dira patineteak sartzen). Kopuru horri bidegorritik joan ordez errepidetik joan diren bizikletak gehitzen badizkiogu, kopuru hori 165 izatera iristen da.*
- *Horrezaz gain, lanegunetan jaiegunetan baino gehiago erabiltzen da bidegorria. Horrek esan nahi du bizikleta lanera joateko, eskolara joateko, erosketak egiteko,... erabiltzen ohi dela.*
- *Kontaketa egin den tokian, bertatik igarotzen diren 10 ibilgailuetatik 1 bizikleta da.*

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Nola baloratzen ditu emaitza horiek taldeak?



Taldeak...

- Oso ondo baloratzen ditu datuak. Horrek adierazten digu Legazpin mugikortasun iraunkorra lortzeko bidegorriaren alde egindako gure apustua egokia zela; eta datu horiek ez datoz bat kalean entzun diren bidegorriaren kontrako hainbat iritziekin: "bidegorria ez da erabiltzen eta ez da inoiz erabiliko".
- Baina, hala ere, *hainbat pista* ematen ditu Legazpin bizikletaren protagonismoa eta bizikidetza hobetzen lagun dezaketenak. Jasota!
  - Hobetzen bagoaz ere, ezinbestekoa da bizikleta erabiltzen duten pertsonen zuzendutako sentsibilizazio-lan sakona egitea, bizikleta zentzuz erabil dezaten, jantzien gaineko araudia bete dezaten, abiadura zain dezaten...
  - Ogi-berri okindegitik gertu dagoen bidegurutze arriskutsua aztertzea eta hari irtenbidea ematea komeni da.

### • Eskaera

Horrezaz gain, Manuel Fernandezek egin duen eskaera jaso dugu: Aizkorri galdaragintzaren ondoan moztu eta bertan utzi diren zuhaitzak kudea ditzala eskatu dio Udalari.

## Gaurko gai nagusia: Legazpiko herri-barruko autobus zerbitzua eta hainbat kontu zehaztea

Hasierako oharren ondoren, gaurko gai nagusiari heldu diogu: Legazpiko herri-barruko autobus zerbitzua.

Labur gogora ekarriz:

- Joan den azaroaren 15ean egin genuen tailerrean taldeak zerbitzuaren lehentasunezko helburu publikoak finkatu zituen. Era berean, zerbitzua diseinatzean kontuan hartu beharreko oinarrizko irizpideak zehaztu zituen: txartela arrazoizko prezioan.
- Horrekin guztiarekin, azkeneko hilabete honetan Udalak proposamen bat diseinatu du, zerbitzuaren ibilbidearekin eta ordutegiarekin. Proposamen hori taldearekin kontrastatuko dugu gaur, beste kontu garrantzitsuekin batera.

Beraz, gogoz, aztertu dugun puntu bakoitzean urratsez urrats egin dugu aurrera. Eta, horretarako, banaka eta talde txikietan hausnartu dugu eta, ondoren, denen artean eztabaidatu dugu gaia.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Segidan, modu ordenatuan, aztertu diren 4 puntuak eta bakoitzean jaso diren oinarritzko iritziak eta emaitzak azalduko ditugu:

1. Proposatu den zerbitzuaren oinarritzko ezaugarriak eta autobus-modeloa kontrastatzea.
2. Autobuserako proposatu den ordutegia aurkeztu eta kontrastatzea.
3. Autobuserako proposatu den ibilbidea aurkeztu eta kontrastatzea.
4. Alderdi ekonomikoa eta zerbitzua kudeatzeko modua aurkeztu eta kontrastatzea.

### 1. Proposatu den zerbitzuaren oinarritzko ezaugarriak eta autobus-modeloa kontrastatzea



Lehenbizi, Udalak proposatu duen autobus zerbitzuaren *oinarritzko ezaugarri batzuk* zehaztu dira:

#### Zerbitzuaren oinarritzko ezaugarriak:

- Udalak enpresa bati azpi-kontratatu dio zerbitzua. Horrela, enpresa horren ardura izango da autobusa erostea, gidaria kontratatzea eta mantentze-lanen kostuari aurre egitea. Horren trukean, Udalak diru-kopuru bat ordainduko dio urtero enpresa horri.
- Aukeratutako autobusak 22-24 plaza izango ditu. Atzealdeko sarrera ia espaloiarekin parean geratuko da. Eta gurgil-aulkientzako plataforma bat irekiko da eskuz.
- Horrez gain, Udalak ibilgailuak eta zerbitzuak ingurumen arloko irizpide batzuk bete ditzatela eskatuko dio enpresari.

Zehazki, bete beharreko irizpideak izango dira honako hauek:

- Euro 5 isurien gaineko ingurumen-araudia edo EEV motorra.
- Ihes-hodia sarrera-ateetatik urrun egongo da.
- Zarata: motorraren konpartimendua erabat isolatuta egongo da.
- Gidariak gidatze eraginkorraren ikastaroa eginda izango du.

Eta beste puntu batzuk puntu gehiagorekin baloratuko dira:

- Eskatutako baino isuri gehiagokoen gaineko araudiak betetzea.
- Ibilgailua % 100 biodiesela erabiltzeko egokituta egotea.
- Erregaiaren kontsumoa murriztea ahalbidetuko duten sistema automatikoak izatea, hala nola, martxak aldatzeko adierazgailua edo gurgilen presioa kontrolatzeko sistemak
- LED argiak.
- Ingurumen-kudeaketaren ziurtagiria, hala nola, EMAS araudia, ISO 14001, Ekoscan edo antzekoa.


## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Eta lehenengo puntu honekin bukatzeko, taldeak *debatearen lehenengo galderari* erantzun dio:

### Autobus modelo kontrastatzea:

Zer iruditzen zaigu egokiagoa, 22-24 plazako autobusak eserita joateko 10 plaza izatea eta gainerakoak zutik ala 15 plaza esertzeko izatea eta gainerakoak zutik?



### Taldearen iritzia:



- Hobe eserita joateko 10 plaza izatea eta gainerakoak zutik; horrela, leku gehiago dago mugitzeko, erosketetarako orgak sartzeko, haur-kotxeak sartzeko...
- Gainera, eserlekuen altuera azter dadila proposatu da, pertsona nagusientzat edo mugitzeko zailtasunak dituztenentzat erosoak izan daitezzen.

## 2. Autobuserako proposatu den **ordutegia** aurkeztu eta **kontrastatzea**

*Ordutegia* (akta honi erantsi zaion 1. Eranskinean jaso da) izan da eztabaidatu den hurrengo puntua. Gaia azaltzean, Inma Hernandezek proposamena egiteko jarraitu diren irizpideak adierazi ditu: Hauek izan dira:

### Autobusaren ordutegia proposatzeko erabili diren irizpideak:

- Legazpitik Zumarragara doan Lurraldebusen zerbitzua aldaketarik gabe mantentzen da.
- Herri-barruko autobus zerbitzu berriak honako pertsonak lehenesten ditu zerbitzu ona eskaintzerakoan:
  - Trena erabiltzen duten pertsonak (eta Donostiara doazen erdizuzeneko trenak lehenetsi dira). Esan beharra dago autobusa ez dela geltokiraino iritsiko, behean geratuko da.
  - Brinkolako eta Telleriarteko bizilagunak.
  - Urtatzako bizilagunak.
  - Gizarte-zentroa erabiltzen duten bizilagunak.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Autobusaren ordutegia proposatzeko erabili diren irizpideak:

- Eta beraz, ez da lehentasunezko hartu honako jendea:
  - Aztiri auzoko bizilagunak (auzo horretara dagoen distantziak zaildu egiten du lehentasunezkoak diren beste kolektiboekin bateragarria izan daitekeen kalitatezko zerbitzua eskaintzea).
  - Industrialdeetako langileak, oso zaila delako sarrera eta irteerako ordutegi desberdinei erantzutea.
  - Kanpotik Legazpira etor daitezkeen bisitariak (turismoa egitera datozenak, adibidez).
- Ordutegiaren lehenengo proposamenean autobus zerbitzua astelehenetik ostiralera eta urtean 11 hilabetetan (abuztuan ez da zerbitzurik eskainiko) eskaintzea proposatu da.

Taldeak proposatu den ordutegia hobetzeko aukerak aztertu ditu:

### Autobusaren ordutegia kontrastatu da:

Proposatu den ordutegia egokitu edo aldatu beharra dagoela uste al dugu?

#### Taldeak hainbat proposamen egin ditu eta Udalak aztertu egingo ditu behin betiko ordutegia diseinatzean:

- Posible izango litzateke zerbitzua larunbat goizetara zabaltzea?
- Guriditegi auzoko bizilagunei proposatutako zerbitzuak haiek dituzten beharretara erantzuten dien galdetu zaie baina oraindik ez dute erantzun. Ezetz esaten badute edo zerbitzua erabiltzeko konpromisorik hartzen ez badute, ibilbidea eta ordutegia aldatu egin daiteke beste kolektiboen onurarako.
- Oso inportantea da autobusa garaiz iristea geltokira, pertsona nagusiek batik bat, makinetan txartela eskuratzeko astia izan dezaten.
- Behin betiko ordutegia edozein izanda ere, ondoren aipatzen diren bi kontu aintzat hartu beharrekoak direla uste dugu:
  - Azpi kontratatuko den enpresarekin zerbitzua frogatzeko epe bat jartzea eta, ondoren, egin beharreko egokitzeak egitea.
  - Komunikazioaren gaia ongi lantzea, bai zerbitzua martxan jarriko denean, bai ondoren aldaketak egingo direnean.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 3. Autobuserako proposatu den **ibilbidea** aurkeztu eta **kontrastatzea**

Ordutegia kontrastatu ondoren, proposatutako *ibilbidea* aztertzeko ordua iritsi da (akta honi erantsi zaion 2. Eranskinean jaso da). Kasu honetan, taldeak ere bere ekarpenak egin ditu:

#### **Autobusaren ibilbidea kontrastatzea:**

Proposatu den ibilbidea egokitu beharra edo aldatu beharra ikusten dugu?



#### **Taldeak, proposamenak beharrei ongi erantzuten diela esan ondoren hainbat ideia eman ditu:**

- Udaletxearen parean gelditzeko lekua egokitzea.
- Centro extremeño elkartearen parean gelditzeko lekua egokitzea.
- Olaberria auzoan, Zorrotz enpresaren parean gelditzeko lekua egokitzea.

### 4. Alderdi ekonomikoa eta zerbitzua kudeatzeko modua aurkeztu eta kontrastatzea

Azkenik, *zehaztasun ekonomikoak eta zerbitzua kudeatzeko moduaren* inguruko zehetasunak ezagutu ditugu.

#### **Datu ekonomikoak eta Zerbitzua kudeatzekoak:**

- Zerbitzuaren urteko kostua 85.000,00 eurokoa izango da (BEZ barne), 10 urteko kontratu baterako. Kalkuluak eginez, eguneko kostua 320 eurokoa izango da (BEZ barne).
- Txartelen salmentatik kostuaren % 5 edo 10 bete daitekeela jo da.
  - Egunero 50 pertsonak zerbitzua erabiltzen badute, urte baten 6.600,00 euro fakturatuko dira (zerbitzuaren kostuaren % 7,7).
- Udalak txartelaren prezioa 0,50 eurotan finkatzea pentsatu du.
  - Bidaia bakoitzean 3 pertsona joanez gero, urtean 6.000,00 euro inguru jasoko lirateke.
- Txartela kobratzerakoan, bi aukera daude:
  - Lurraldebusen txartelarekin txartel bakarraren aldeko apustua egingo genuke eta aukera horrek beherapenak lortzea ahalbidetzen du.
  - Betiko txartelak eta bonuak erabiltzea.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Azkeneko kontuak zehazten joateko, taldeari txartela kobratzeari buruz zein iritzi duten galdetu zaio:

### Autobuserako txartelak kobratzeko eredia kontrastatzea:

Zer iruditzen zaigu egokien?

- Lurraldebus sistema erabiltzea?
  - Sistema horrek baditu hainbat abantaila: 2013an Gipuzkoan autobusetarako eta trenetarako martxan jarriko den txartel bakarraren sisteman sartzea ahalbidetuko digu; beherapen-sistema bat eskaintzen du; datuen txosten zehatza eskaintzen du urteko 2.000 euroren kostuarekin; kudeaketa hirugarren baten esku uzten da baina Udalaren esku geratzen dira gai garrantzitsuen gaineko erabakiak hartzea, hala nola, txartelaren prezioa, beherapenak,....
  - Eta eragozpen bat du: Udalak, Lurraldebus sisteman sartzeko, 35.000 euroko ordainketa egin behar du gehi txostenak jasotzeagatik urtero ordaindu beharreko 2.000 euroak. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldunditik diru-laguntzak jasotzeko aukera dago.
- Edo geure txartelen eta bonuen sistema sortzea?

### Debataren ondoren, taldeak argi dauka:

- Hemen eskainiko den zerbitzua Lurraldebus sisteman sartzea komeni dela uste du, eta horretarako diru-laguntzak lor badaitezke, hobe. Kudeaketa hirugarren baten esku uzten bada ere, Udalak erabakitzeke eskumena izaten jarraitzen du eta bere esku geratzen dira erabaki garrantzitsuak, hala nola, txartelaren prezioa, beherapenen ezaugarriak,....
- Horrez gain, taldeak ontzat hartu du txartelerako proposatu den prezioa, zerbitzua erabiltzera bultzatzen duelako eta hori da lortu beharreko lehenengo helburua "autobusa herriatik zehar hutsik dabilela ikus ez dezagun".



Eta iritzi horrekin, autobus zerbitzuaren gaineko kontuak kontrastatzearekin bukatu dugu.

Eta egindako lanetik, ideia argi bat atera dugu.... "Ikusten dugu", zerbitzu berri hau beharrezkoa eta egokia dela uste dugu; beraz, ... seguru gaude Legazpiko herri-barruko autobusa arrakastatsua izango dela!



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Tailerra bukatu dugu, eta ez hori bakarrik, baita 2011. urtea ere...

Sentsazio oso onarekin: gaur, esate baterako, helburuak bete ditugu. Baina urte osoari erreparatuz gero, balorazioa hobetagoa da!

Topagunea finkatu egin da aldaketa politikoez eta sozialez baterik egon den urte honetan. Elkarrengandik ikasi dugu ELKARREKIN hausnartzen, proposatzen, lan egiten, amets egiten, sortzen, ....

Foro hau.... altxorra da gure herriarentzat!

**Eskerrik asko guztioi** urte osoko esperientzia eta ikasketengatik!  
2012an, gehiago!

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Anexo 1. Propuesta de horario para el servicio de autobús

GURIDITEGI	TELLERIARTE	PLAZAOLA	URTATZA	TEMAS A TENER EN CUENTA
			7:15	
		7:30	7:40	<u>Tren semi-directo</u> a Donosti: 7:35
		7:50	8:05	<u>Tren semi-directo</u> a Donosti: 7:55 Tren a Gazteiz: 7:56 Apertura Centro de Salud
8:30	8:40	8:45	9:00	Traslado de alumnos/as de Guriditegi y Telleriarte a la ikastola Haztegi y al colegio Domingo Agirre. <b>No se podría acercar a la gente de Urtatza al <u>tren semi-directo</u> a Donosti de las 8:45</b>
		9:15	9:30	
		9:45	-	
10:00	10:10	10:15 – 11:00 Horario descanso	11:15	
		11:30	11:45	Tren a Donostia: 11:42
		12:00	12:15	
		12:30	12:45	Tren a Donostia 12:42
	13:05	13:10		
		16:30	16:45	Tren a Gazteiz: 16:33 Traslado alumnado a Guriditegi: Domingo Agirre sale a las 16:15 y Haztegi a las 16:30. <b>Demasiada espera para alumnado de Domingo Agirre???</b>
17:15	17:25	17:30	17:45	Tren a Donostia: 17:47
		18:00	18:15	Tren a Donostia 18:17
		18:30–19:15 Horario descanso	19:30	<u>Tren semi-directo</u> procedente de Donostia 19:11
		19:45	20:00	
		20:15	20:30	<u>Tren semi-directo</u> procedente de Donostia: 20:15
	20:50	21:55–21:05	21:15	<u>Tren semi-directo</u> procedente de Donostia: 21:04 Recoger a las personas que salen del Centro Social <b>¿Demasiado tarde para ir a Telleriarte?</b>

# Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

## Anexo 2. Propuesta de recorrido para el servicio de autobús

